

GURE BOST ZENTZUNAK

Gizonok gorputz eta arima gara, ots, soin eta gogo. Gizonaren soña, Jainkoak lur-apurrez egiña; arimea, barriz, bere antz-irudira sortua: arimeak bizi gaitu; soñez auts, ez gara besterik.

Gure gorputz edo soñak ba-ditu bere zentzunak, eta bosteraño
be: 1) Ikusmena; 2) entzumena; 3) usaimena; 4) gozamena ta 5)
ikumena.

1) Munduko gauzak begien bidez ikusten doguz; begirik ezpa
geunke, ezin ezelan be ikusi aitarik, ez amarik, ez anairik, ez lorarik,
ez mendirik; itxaso, izar, zelai ta beste eder guztiak be, begien bi-
tartez dakusguz. Ikusmenari esker, ba-dakigu gauzak zelakoak diran,
zuriak ala baltzak, gorriak ala urdiñak; baita urrin ala ur dagozan
be. Itsu gaixoak bai errukarri!

2) Giza-soñaren len-zatian, au da, buruan, belarriak ditugu,
otsak entzuteko. Belarriz entzuten ditugu, bai, itzak, garraxiak, deadar
ta oiu estuak. Belarri barik, ezin ezer aditu ez entzun; ezin banatu
zein ots dan atsegin ez zein yakun atsekabe. Jainkoari eskerka, ma-
kur gakiozan.

3) Usaimena dogu irugarren zentzuna; sudur bidez artzen
ditugu usaiñak. Madari, sagar ta igali mota guztien usain gozoak,
zelako atsegina emon oi dauskuen! Eta baratzean erne ta garatu
oi diran lora ta liliak? Surrak argi diñosku zer yakun on eta zer
kaltegarri, aize bitartez batez be: usain txarreko aizea kaltegarri da
gure osasunarentzat. Txakurrak, urriñetik, somatzen dau bere nagusia.
Abere ta pizti askok, guk baño ernai ta zoliago dabe usaimena.

4) Gauzen gozoa, agoz eta batez be ago-sabaiaren bitartez,
artzen dogu. Mertxika bat ikusi gengike, baita bere usaiña artu be,
baiña bere gozoa artzeko, bere zatitxo bat beintzat agoan sartu bear.
Gauzak zer diran agoz txastatzen doguz: orrela eztia gozoa da, oz-
piña garratza, itxas-ura gazia.

5) Gauzak bigun ala gogor diran jakiteko, eskuz ikutzen do-
guz. Eta, izan be, gure inguruako gauzak, batzuk legun dira, beste
batzuk lakan. Baiña ikumena ez daukagu eskuetan bakarrik; gor-
putz guztian dogu noski. Otzak eta beroak, esaterako, gorputz guz-
tian dardar eragiten dausku. Oiñakaz be, gogorra ta biguna laster
igarten dogu zein ta zer dan.

Bost zentzunok, barriz, arimearen leio besterik ez dira.